

DIRU ITURRIAK

Gure diru sarrerak, bost iturri nagusietatik aterako ditugu: Auto markekin egindako akordioen bitartez, gobernuarekin egindako akordioen bitartez, gure enpresak kapital zabalkuntzan ateratako partaidetzen bitartez, banku entitateei eskatutako kredituen bidez eta Crowdfunding-en bidez.

- Auto markekin egindako akordioak, hau da, auto marken enpresak diru kantitate bat eman behar digute euren kotxeetan gure sentsoreak jartzearen truke. Baina gure akordioen bidez zenbat eta kantitate handiagoatan erosi orduan eta merkeagoa aterako zaie.
- Gobernuarekin egindako akordioak, hau da, lege bat onartu behar da kotxe guztietan sentsoreak jartzera behartzeko eta gure proiektua aurrera eramaten laguntzeko diru laguntzak onartuko dizkigute. Gobernuari interesatzen zaie errepidean heriotza gutxiago egotea.
- Kapital zabalkuntzan ateratako partaidetzen bitartez, hau da, gure enpresako enpresaburuak, kapitala behar dugula erabakitzen badu, enpresak kapital zabalkuntza egingo du eta jendeak erositako partaidetzetatik dirua lortuko dugu.
- Banku entitateekiko eskatutako kredituen bidez ere dirua lor dezakegu gure proiektua finantzatzeko.
- Crowdfunding-aren bidez ekintzaileak komunitateari finantzaketa eskatzen dio, bere proiektuan interesa izan dezakeen edonori, normalean Interneten bidez eta nahi duen diru kantitatea gehitu dezake.

